

Iniciativa de: 	Con el apoyo de: 	En colaboración con: 
---	--	--



**SEGURTASUNERAKO ON-LINE LEHIAKETA – II. EDIZIOA**  
OINARRIAK

## 1. PARTE-HARTZAILEAK

ARRETAZ lehiaketan EAEko Lehen Hezkuntzako ikasleek hartu ahal izango dute parte, beti ere irakasleek lagunduta.

## 2. MAILAK

Hiru maila izango dira:

### A. Lehen Hezkuntzako Lehenengo Zikloa. TRIPTIKOA

Triptiko bat prestatu behar da (hiru zatitan tolestutako orri bat). Triptikoak irakurtzeko norabide BI izango ditu, zabaltzen den norabidearen arabera. Norabide batean, “Gertatu zen” azalaren atzeko aldean, etxean, kalean edo eskolan bizi izandako gertakariren bat erakutsiko duen eszena bat ikusi ahal izango da (marrazkia, argazkia, collagea...). Irakurketako beste norabidean, “Saihestu zen” azalaren atzeko aldean, istripu hori nola saihestu zitekeen erakutsiko da, eta, horretarako, hartutako prebentzioko neurria edo jarrera erakutsiko duen irudi bat eta hori azalduko duen testu labur bat jasoko ditu.

### B. Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloa.-> HORMA-EGUNKARIA

Ziklo honetako ikasleek 4 eta 8 albiste bitartean jasoko dituen horma-egunkari bat prestatuz hartuko dute parte lehiaketan. Egunkari honek berezitasun bat izango du, albistek binaka aurkeztuko baitira. Alde batetik, laneko istripu baten gaineko informazioa emango duen prentsako albiste bat erakutsiko da, eta, bestetik, asmatutako beste albiste bat prestatuko da, hartu izan balira, istripua saihestuko zuketean prebentzio neurriak deskribatzeko.

### C. Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloa.-> MONOGRAFIKOA

Ziklo honetako ikasleek aldizkari bat egin beharko dute. Aldizkariak ertzetik gratatutako bi orri edo erditik tolestutako A3 neurriko orri bat izango du (lehen orrialdea, azken orrialdea eta horien barruko bi aldeak). Aldizkariak Laneko Arriskuen Prebentzioaren gaietako bat aukeratu beharko du (Ergonomia-Psikosoziologia, Segurtasuna eta Higienea) eta gai hori garatu, dibulgaziorako izango balitz legez, albistek, grafikoak, aholkuak, irudiak, elkarrizketak, iritzi-artikuluak... erabiliz. Gutxienez, edukien %50 beraiek egindakoa izan beharko da, eta gainerakoa, beste iturri batzuetatik lortutakoa izan ahalko da, hala nola, prentsa, aldizkari espezializatuetatik edo internetetik.

#### OHARRAK:

- Nahi beste lan aurkeztu ahal izango dira lehiaketara.
- Lanak ikasgelako ikasle guztiek osatutako taldeek edo azpitaldeek egin ahal izango dituzte.

<p>Iniciativa de:</p> 	<p>Con el apoyo de:</p> 	<p>En colaboración con:</p> 
---	--	--

### 3. GAIK

Arretaz lehiaketako edukietako edozein hartu ahal izango da gaitzat. Eduki horiek hiru atal handitan daude banatuta:

- Ergonomia eta Psikosoziologia
- Higienea
- Segurtasuna

### 4. HIZKUNTZA

Lanak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira.

### 5. EPAIMAHAIA

Epaimahaia hiru pertsonen osatuko dute: EDEXeko batek, Osalaneko batek eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren munduko batek, hurrenez hurren.

Eraitza 15 eguneko epean jakinaraziko zaie parte-hartzaile guztiei, lanak entregatzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

### 6. SARIK

Ondoko sariak banatuko dira:

#### 6.1. Lehen Hezkuntzako Lehenengo Zikloa

Egun bateko txangoa autobusean ikasgela-taldearentzat eta laguntzaileentzat. Txangoa ikasturte honetan egin behar da (2006ko iraila – 2007ko ekaina). Irabazleek aukeratuko dute nora joan, baina antolatzaileekin adostu beharko dute.

Irakasleak edo tutoreak ere saria irabaziko du: bi gau jarraiko egonaldia bi pertsonarentzat, ostatu eta gosari erregimenean, [www.nekatur.net](http://www.nekatur.net) web orrian agertzen den Euskadiko edozein nekazal turismoko etxetan, baldin eta prezioa 40 euro/pertsona/gaueko (BEZ gabe) baino txikiagoa bada. Aurreko kasuan legez, saria ikasturte honetan eta xede horretarako deskribatutako prozedura betez gozatuko da.

#### 6.2. Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloa

Aurrekoaren berdina.

#### 6.3. Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloa

Aurrekoaren berdina.

<p>Iniciativa de:</p> 	<p>Con el apoyo de:</p> 	<p>En colaboración con:</p> 
---	--	--

### **Akzesitak**

Lehenengo saria lortu ez duten maila bakoitzeko 3 lanik aipagarrienen dagokion Diploma jasoko dute.

### **Opariak**

Ikasle parte-hartzaile bakoitzak opari txiki bat jasoko du, parte hartu izanaren oroigarri.

## **7. ARGITALPENA**

EDEXek eskubidea dauka aurkeztutako lanak edo lan horietako zatiren bat argitaratzeko, baina egileak berariaz aipatu beharko ditu.

## **8. EPEA**

Lehiaketara aurkeztutako lanak ezarritako egunak baino lehen bidali behar dira, hau da, 2006ko abenduaren 29a baino lehen, lehenengo lehiaketaren kasuan, eta 2007ko otsailaren 20a baino lehen, bigarren deialdiaren kasuan.



Iz. **Laura Varona**  
EDEXeko Heziketa Programen arduraduna